



*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*

*El Lehendakari del Gobierno Vasco*

**4/2020 Dekretua, otsailaren 13koa, lehendakariarena, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren lege-aurreproiektua aldez aurretik onartzen duena.**

Lehendakariaren azaroaren 26ko 36/2019 dekretuaren bidez, hasiera eman zitzaion Euskadiko Memoria Historikoren eta Demokratikoaren Lege-aurreproiektua lantzeko prozedurari. Prozedura horren tramitazioa Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuari dagokio.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikulua arabera, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko du, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Horregatik guztiagatik, eta lege-aurreproiektuaren testua ikusi ondoren, hau

#### **XEDATZEN DUT:**

**Lehena.-** Aldez aurretik onartzea Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Lege-aurreproiektua, dekretu honen eranskinean jasotzen dena.

**Bigarrena.-** Lege-aurreproiektuaren izapideek aurrera egin dezaten agintzea, lehendakariaren azaroaren 26ko 36/2019 Dekretuan eta Xedapen orokorrek egiteko prozedurak erregulatzen dituen abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako izapideen arabera, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 13an.

Lehendakaria,

**IÑIGO URKULLU RENTERIA**



## ERANSKINA

### EUSKADIKO MEMORIA HISTORIKOAREN ETA DEMOKRATIKOAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUA

#### Zioen azalpena

#### Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Xedea eta zertarakoa.
2. artikulua.- Printzipio orokorrak.
3. artikulua.- Hartzaileak.

#### I. kapitulua: Egia jakiteko eskubidea

4. artikulua.- Egia argitzeko ikerketa.
5. artikulua.- Gerra zibilean eta frankismoan, 1936-1978 epean, Euskadin izandako giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzko txostena.

#### II. kapitulua: Justizia izateko eskubidea

6. artikulua.- Lankidetzaren Justizia Administrazioarekin.
7. artikulua.- Delituren bat egin izanaren zantzuak jakinaraztea.
8. artikulua.- Prozesu-egintzak.
9. artikulua.- Nazio mailako eta nazioarteko erakundearen gomendioak sustatzea eta jarraitzea.

#### III. kapitulua: Aitortza eta erreparazioa izateko eskubidea

10. artikulua.- Aitortza orokorra.
11. artikulua.- Erakundearen neurriak eta egintzak gerra zibilaren eta diktaduraren biktimak oroitze eta aitortze.
12. artikulua.- Erreparazio-neurriak.

#### IV. kapitulua: Dibulgazioa eta hezkuntza

13. artikulua.- Memoria historikoaren dibulgazioa.
14. artikulua.- Memoria historikoaren ekarpenak hezkuntzan.

#### V. kapitulua: Desagertutako pertsonak bilatzeko eta identifikatzeko neurriak



15. artikulua.- Gerra zibilean eta frankismo garaian desagertutako pertsonak berreskuratzea.

16. artikulua.- Gorpuzkien lokalizazio-mapa.

17. artikulua.- Biktimak lokalizatu, desobiratu eta identifikatzea.

18. artikulua.- Gorpuzkiak ustekabeen aurkitzea.

19. artikulua.- Proba genetikoak eta DNA-bankua.

20. artikulua.- Lankidetzaren beste gobernu batzuekin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko erakundeekin.

21. artikulua.- Erorien Harana (Cuelgamuros).

22. artikulua.- Duintasunaren Kolunbarioa.

#### **VI. kapitulua: Euskadiko memoriaren lekuak, guneak eta ibilbideak.**

23. artikulua.- Euskadiko memoria historikoaren lekuak, guneak eta ibilbideak.

#### **VII. kapitulua. Memoria historikoaren kontrako elementuak**

24. artikulua.- Euskadiko memoria historikoaren kontrako elementuak.

25. artikulua.- Memoria historikoaren kontrako elementuak kentzea.

26. artikulua.- Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak kentzea.

27. artikulua.- Laguntzak eta dirulaguntzak.

#### **VIII. kapitulua. Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak**

28. artikulua.- Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak eta beren babesa.

29. artikulua.- Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak gordetzea eta eskuratzea.

30. artikulua.- Dokumentu-funtsak berreskuratzea.

31. artikulua. Dokumentuetarako irispidea izateko eskubidea.

32. artikulua.- Euskadiko Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa.

#### **IX. kapitulua. Erakunde memorialisten aitorpena, sustapena eta partaidetza**

33. artikulua.- Mugimendu memorialista aitortzea.

34. artikulua.- Erakunde memorialisten jarduera sustatzea.

35. artikulua.- Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen Erregistroa.

36. artikulua. Euskadiko memoria historikoko erakundearen partaidetza.



## **X. kapitulua: Jarduera eta antolakuntza administratiboa**

37. artikulua.- Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.

38. artikulua.- Lau urterako jarduketa-plana.

39. artikulua.- Lankidetzatoki erakundeekin.

## **XI. kapitulua. Zehapen-araubidea**

40. artikulua.- Araubide juridikoa.

41. artikulua.- Arau-haustea.

42. artikulua.- Kalifikazioa astuntzea.

43. artikulua.- Zehapenak.

44. artikulua.- Prozedura.

45. artikulua.- Zehatzeko eskumena.

**Lehenengo xedapen gehigarria. Diruzko erreparazio-neurriak**

**Bigarren xedapen gehigarria. Memoria historikoaren lekuak, guneak eta ibilbideak**

**Lehenengo xedapen iragankorra. Izapidetze-fasean dauden prozedurak**

**Bigarren xedapen iragankorra. Dokumentu-funtsak berreskuratzea**

**Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako arauak**

**Azken xedapenetako lehenengoa. Erregelamendu bidezko garapena**

**Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea**



## Zioen azalpena

### I.

Euskal Autonomia Erkidegoak berrogei urte baino gehiago daramatza demokrazian bizitzen, eta hamabost urte baino gehiago igaro dira erakundeek memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko konpromisoa hartu zutenetik. Hori dela eta, heldutasunez heldu ahal izan zaio gerra zibileko eta frankismoko memoria historikoa berreskuratzeko lana sendotu eta burutzeko xedea duen lege hau idazteari. Inoiz gertatu behar ez ziren eta berriro gertatu behar ez diren gertakari historikoen bidegabekeria jasan zuten biktimak gogoratuz egin dugu. Memoria berreskuratzea, aldi berean, etorkizunerako ariketa bat ere bada. Memoriak gordetzen duen ondare demokratikoak oraingo eta etorkizuneko bizikidetzaren oinarri izan behar du, baita balio etiko eta printzipio demokratikoen bultzatzaile ere.

Euskal Autonomia Erkidegoak, eta Espainiak oro har, Bigarren Errepublikaren kontrako 1936ko estatu-kolpe militarra jasan zuen. Errepublika horri esker onetsi ahal izan zen, hain zuzen ere, Euskadiren lehenengo autonomia-estatutua, 1936ko urriaren 1ean onartu baitzuten Gorteek eta, ondorioz, lehenengo Eusko Jaurilaritza eratu zen, Gernikan, 1936ko urriaren 7an.

Estatu-kolpe militar hori, gerra zibila eragin eta legez kontrako estatua ezartzeaz gain, diktadura garai luze baten aurrekaria izan zen, zurrun mantendu zena 1978an Konstituzioa onartu zen arte. Bi gertakariak, gerra zibilak eta diktadurak, eragin traumatikoa izan zuten euskal gizartean eta gerraren eta frankismoaren biktimen gain, eta, gainera, ikuspegi demokratiko batetik begiratuta, nazioarteko zuzenbide humanitarioa haustea eta giza eskubideak urratzea eragin zuten.

Euskadiko memoria demokratikoa iragan horretako oroipenak oinarri hartuta eta ezagutza historiko zehatzetik abiatuta eraikitzea da kultura demokratikoa indartzeko modurik sendoen, ukapenezko diskurtsoei, bazterkeriari eta tolerantziarik ezari aurre egiteko, eta gure etorkizuna bizikidetzara demokratikoan oinarrituko dela ziurtatzeko.

### II.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen testuinguruan sartzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera-esparrura eratortzen diren diziplina hartako betebeharrei erantzuten die, edukia emanez.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaz (1948) eta eskubide zibilen eta politikoen nazioarteko itunez harago batetik, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturetz harago bestetik (1966), benetako konstituzionaltasun-bloke unibertsal gisa, honako hau da arlo honetako ezinbesteko erreferentzia-puntua: 60/147 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartu zuena, Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen biktimek eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak aurkezteko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak ezartzen dituenen. Ebazpen horretan hasten da egituratzen hiru hanka hauek dituen mahaia: egia jakiteko eskubidea, justizia izateko eskubidea eta erreparazioa izateko eskubidea. Horixe izango litzateke oinarri demokratikoan eta zuzenbidekoan nazioarteko zigor-zuzenbideko eta nazioarteko zuzenbide humanitarioko krimen larrienek suntsitutako edozein gizarteri sortzen lagundu beharko lioketen gutxienekoen programa arauemailea.



Aipatutako printzipioek biktimek eta gizarte osoak dituzten eskubideen dimentsio bikoitz batera zuzentzen dute: banakoena eta taldekoa. Horrela, jakin nahi da zein izan ziren giza eskubideen urraketa sistematikoen ereduak, funtsezko elementua baita etorkizunean krimen horiek berriro gertatzea saihesteko programa arauemaileak ezartzeko eta, aldi berean, bizikidetzaren oinarri demokratikoak sendotzeko. Erreparatu daitekeena erreparatzea da helburua, zer gertatu zen jakitea, berriro gerta ez dadin; horrela, egiak, nazioartean hazten ari den eskubidea den aldetik, biktimei eta gizarte osoari lagun diezaion, zuzenbidezko estatuaren filosofian egituratutako itun sozial berri baten eragile gisa. Ondorio horietarako, 2011ko irailaren 29an, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 18/7 Ebazpenak egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta berriz ez gertatzeko bermeen sustapenerako errelatore bereziaren mandatua ezarri zuen. Horrek agerian jartzen du estatu demokratiko orok premia saihestezina duela aurre egiteko, baita legegintzako neurriekin ere, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak gertatu diren egoerei. Egia, justizia eta erreparazioa, horrela, behin betiko lotuta geratuko dira berriz ez gertatzeko neurriei, ahaleginak etorkizunaren aldeko memoria demokratiko baterantz bideratzeko bektore gisa.

Arau-esparru hori, hazten ari den nazioarteko estandar gisa, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikulua bitartez eramaten da Espainiako ordenamendu juridikora. Artikulu horretan ezarritakoari jarraituz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiak gai horren inguruan berretsi dituen nazioarteko tratatu eta akordioen arabera interpretatu behar dira oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak. Hori dela eta, Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legea (Memoria Historikoaren Legea) zuzenean dago lotuta nazioarteko estandarrekin, eta barne-jurisdikziora ekartzen du arau-esparru hura.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legeak jarduera-ildo horretan jarraitzen du, eta garatu egiten du, dituen eskumenen arabera. Autonomia Estatutuaren 9. artikulua printzipio gidari gisa ezartzen du botere publikoek herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dutela, eta bizi-baldintzak hobetzearen aldeko politika bultzatuko dutela bereziki. Botere publikoek dagokie, baita ere, baldintzak sortzera eta oztupoak desagerraraztera bideratutako neurriak hartzea, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezten. Betebehar hori bat dator Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan ezarritakoarekin, eta, beraz, pertsonaren eta, ondorioz, gure gizartearen babes- eta erreparazio-esparru ezberdinek gabe intemporal bat gaitzen du. Aurretiko oinarri horren gainean, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea Gernikako Estatutuaren 10.39 artikulua bitartez Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion eta garapen komunitarioa bereziki aipatzen duen eskumen-titulua oinarritzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko lege honek nazioarteko estandarrak eta estatuko oinarri arauemaileak areagotzen eta zabaltzen ditu, osagarri moduan, bere arloan, eta bere erreferentziazko komunitatean proiektatzen ditu, kalitate handiagoko kultura demokratiko baten eta giza eskubideak betetzeko estandarrak igotzearen alde.

### III.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legeak, ordea, ez du hutsetik hasten arlo horretako jardun publiko eta instituzionala. Aldiz, urrats berria da, eta arau bidez sendotu, sustatu eta zabaltzeko egiten du orain arte garatutako ekintzen bolumena.

Laurogeiko hamarkadan hasi ziren lehenengo jarduerak egiten gerra zibilak eta ondorengo errepresioak ekarritako ondorio pertsonal eta profesional batzuk erreparatzeko asmoz. Hauek egin ziren, besteak beste:



- 11/1983 Legea, ekainaren 22koa, Euskal Herriko Autonomia-Arduralaritzari zerbitzu egindako lanarien lanbide eta gozamen-eskubideekikoa;
- 8/1985 Legea, urriaren 23koa, Euskal Herriko Autonomiazko Arduralaritzan zerbitzu egin zuen langilegoaren lanbide eta gozamen-eskubideei buruzko ekainaren 22ko 11/1983 Legea osatuzkoa;
- 1/1986 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 13koa, Euskal Herriko Autonomia-Administrazio bere zerbitzuak egin zituen langilegoaren lanbide eta gozamen-eskubideei buruzko Eraberritutako Idazkera onartuzkoa;
- 8/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarakoa (3.2 eta 11. artikulua);
- 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, Ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa;
- 280/2002 Dekretua, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa;
- 99/2003 Dekretua, maiatzaren 6koa, Ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzko martxoaren 27ko 3/2002 Legea garatzen duena;
- 22/2006 Dekretua, otsailaren 14koa, askatasun-gabetzea jasandako pertsonen, Langile Soldaduen Diziiplina Batailoietan egondakoei barne, konpentsazio ekonomikoak emateko ebazpenak ezartzen dituena, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betebeharrak izan ditzaten, arau honetan aurreikusitako prozedura-aldaketak salbu.

Baina mende-aldaketarekin areagotu ziren, ordea, horrelako politika publikoak, elkarte memorialistak sustatzen hasi ziren ekimenen berri ematen hasi baitzen. Une horretatik aurrera, politika publikoek ikusgarritasun sozial handiagoa hartu zuten, gorpuzkiak berreskuratzean eta hobiak irekitzean jarri zenean arreta. Bada, 2002ko abenduaren 10a une bereziki sinbolikoa izan zen, Gobernu Kontseiluak sailarteko batzorde bat eratu baitzuen gerra zibilean desagertutako pertsonen hobiak ikertzeko eta lokalizatzeko. Horrek erakusten eta sendotzen zuen Euskal Autonomia Erkidegoa buru zela memoria historikoa berreskuratzearen arloan, ordurako norabide argia zuena justizia, egia eta erreparazioa izan zitezen, besteak beste, kultura demokratikoan aurrera egiteko aukera emango luketen kontzeptuak. Horren ondorio garrantzitsuena izan zen 2003an lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zela Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen artean. Elkarte hori aitzindaria izan zen estatu osoan gerra zibileko hobi komunak desobiratzen eta errepresio frankistari buruzko ikerketak egiten. Hitzarmen horri esker, etenik gabe egin ahal izan dira memoriaren inguruko ekintzak, eta jarduera hori erreferentzia izan da estatu-mailan.

Une horretatik aurrera, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek ezin konta ahala ekimen jarri zituzten abian, batzuetan gizarte zibil antolatuen beraren laguntzarekin, edo gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen senideen lankidetzarekin eta, beste batzuetan, gizartearen bultzadarekin. Horrela, gero eta ekimen gehiago egin dira, esate baterako frankismoaren kontrako borrokaren leku sinbolikoak berreskuratuzko, gorpuzkiak desobiratzeko, artxiboak berrantolatuzko, gertakari historikoen inguruko



ikerketak eta dibulgazioa egiteko, datu-baseak egiteko edo testigantzak jasotzeko, besteak beste.

Memoria historikoaren eta biktimen erreparazioaren bidean egin den beste jauzi kualitatibo bat izan da 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.

Memoriari buruzko politika publikoen instituzionalizazioa gorenera iritsi zen Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legea onetsi zenean. Hain zuzen ere, erakunde horren esku uzten da memoriari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko politiken sustapen artikulatu eta integrala.

2015. urtean sortu zenetik, Gogora institutuak lau urterako jarduketa-plan bat onartu eta garatu du. Horrela, memoria historikoa ikertzeko eta zabaltzeko hainbat ekimen egin dira, baita gerra zibilaren eta frankismoaren biktimak aitortzeko eta omentzeko hainbat ekitaldi ere. Hori guztia, gainera, Zuzendaritza Kontseiluan ordezkaturik dagoen aniztasunaren barruan adostasun-maila handia izanik garatu da. Hasieran egindako bide honetan, elkarri eragiteko guneak sortu ditu Gogorak, gizartearekin, biktimen senideekin eta elkarte memorialistekin batera jarduteko; halaber, arreta handia ipini du hezkuntza arautuko ikasleekin ere partaidetza berezia sortzeko. Ildo berean, bere dokumentazio-zentroa erreferentziazkoa bilakatu da Euskadiko memoria historikoarekin zerikusia duten gaien inguruko gordailuak eta kontsultak egiteko.

#### IV.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko 2014ko azaroan onartu zen legeak aukera eman zuen memoriaren politiken egitura bultzatuko zuen subjektu instituzionala eta bere eskumenak arautzeko. Osagarri gisa, orain sustatzen ari garen lege-tresnak, jarduera horien eremua bateratu eta zehazten du lege honekin.

Azken bi hamarkadetan, frankismoaren biktimen aitortza eta itzulketa morala, eta memoria historikoaren egiaren erreparazioa, adostasun-maila handi batekin partekatu dute euskal gizarteak, eragile sozialek eta bertako erakundeek. Lege hau misio horren eta modu partekatu batean berau burutzeko erabakitutasunaren arau bidezko tresna bat da.

Hain zuzen ere, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legeak, politika publikoak bateratzeaz gain, segurtasun juridikoa ematen laguntzen du, eta politika horietako edukiak zehazten ditu. Eta horrek guztiak baldintza egokiak eragiten ditu iraganeko memoria kritikoa etorkizunerako ezinbesteko bokazioarekin lotzeko.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legeak ez dio iraganari begiratzen gerra zibilak eta ondorengo errepresioak Euskal Autonomia Erkidegoan eragin zituzten sufrimendua eta min bidegabea ez barkatzeko. Legearen xedeak, atzera begira, memoria historikoa du oinarri, baina bere begirada eta helburu nagusia aurrera begira daude, demokraziarantz. Koherentzia, sakontasuna eta bultzada instituzionala eman nahi dizkie egia, justizia eta erreparazioa lortzen lagundu dezaketen politika publikoei —berriro ez gertatzekoak barne—, 1936tik 1978ra bitartean gertatu ziren giza eskubideen urraketa larriei dagokienez. Gizarteek fenomeno makro-kriminalak, gizateriaren aurkako krimenak eta gerrako krimen larriak jasaten dituztenean, Justizia Administrazioaren eskema tradizionalak ez dute indarrik izaten, eta bereziki blokeaturik egoten dira. Horixe gertatu zen Espainiako gerra zibilaren kasuan: gerraren ondoren,





diktadura-garai luze bat izan zen eta, ondorioz, errepresioa luzatu egin zen demokrazia iritsi zen arte.

Justua, bakezalea eta bizikidetzat demokratikoaren aldekoa den gizartea sustatu nahi bada, halabeharrez, dena zaintzen duen tentsio bat beharko da, denbora luzez egongo dena eta, ezinbesteko justizia-ekintza gisa, gizartearen zauri larriak pixkanaka sendatzen lagunduko duena. Izan ere, demokrazia ezin da bere berme guztiekin eta modu indartsu eta iraunkorrean ezarri baldin eta ezin baditu baldintza egokiak sortu aniztasun ideologiko zabaleko eztabaida publiko legitimoa egiteko, betiere iraganeko giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoen kausak eta ondorioak ezagutuko diren esparru batean, antidotoa izan dadin gizarte zibilarentzat. Horrela, zuzenbidezko estatua eta giza eskubideak ezinbesteko abiapuntu funtsezko izango dira, horietatik abiatuta demokratikoki antolatzeko dauden desadostasunak. Alde horretatik, beharrezkoa da, gainera, genero-ikuspegitik ere berreskuratzea memoria historikoa, ikuspegi oso eta testuinguruduna izateko, emakumeek jasan zuten indarkeria guztia aztertu eta erreparatu ahal izateko, giza eskubideen kultura inklusiboa eraikitzeko xedearekin.

## V.

Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legeak hamaika kapitulu ditu, eta xedapen multzoa testuaren amaieran. Xedapen Orokorrek egiten dute testuaren sarrera, legearen xedea eta zertarakoa azalduz, eta oinarri dituen printzipio orokorrak eta hartzaileak zehaztuz.

I. kapituluak egia jakiteko eskubidea lantzen da. Gizarte osoak eta bereziki biktimek duten eskubide bat da, eta helburu du gerra zibilean eta frankismoan gertatutakoa jakitea. Horretarako, ekimen publikoko hainbat ildo zehatz zabaltzen dira, gerra zibilaren eta frankismoaren biktimak identifikatzeko ikerketak sustatzeko eta, aldi berean, estatu-kolpe militarrek eta ondorengo errepresio-erregimenak eta oinarrizko askatasunen gabeziak ezarri zuen iragan ilun hori argitzen laguntzeko.

II. kapituluak biktimek justizia izateko duten eskubidea jasotzen du. Horrela, Justizia Administrazioarekiko lankidetzat, gorpuzkiren bat aurkituz gero delituren bat egin izanaren zantzuak jakinaraztea eta prozesu-egintzak hasteko moduak aipatzen dira. Horretarako, Arartekoren eta nazioarteko erakundearen gomendioei jarraitzen zaie, zigorgabetasuna eragozteko eta justizia izateko eskubidea gauzatzeko neurriak bultzatuz.

III. kapituluak biktimek aitortza eta erreparazioa izateko duten eskubidea arautzen du. Alde batetik, aitortza orokor bat izateko eskubidea arautzen da: Eusko Jaurlaritzak egindako dokumentu pertsonalizatu eta instituzional bat eskuratzeko aukera. Gainera, gerra zibilaren eta frankismoaren biktimak oroitu eta omentzeko egun bat ezarri behar dela azaltzen da; Gogorari agintzen dio biktimak aitortzeko eta omenaldia egiteko jarduerak antolatzeko, eta aipatzen du ahalik eta alderdi politiko gehien eta anitzen babesa izango duen adostasun bat sustatu behar dela memoria historikoaren erreparazioa instituzionalizatuko duen deklarazio bat egiteko.

IV. kapituluak dibulgazioa eta hezkuntza aztertzen ditu. Zeregin horiek ezinbestekoak dira lege honetan, memoria babesteko eta gertatutakoaren inguruko hausnarketa kritikoa sortzeko. Horretarako, lehenik eta behin, memoria dibulgatzeko neurriak nabarmendu dira; adibidez, Gogoraren dokumentazio-zentroa sendotzea, eta erakusketa-gune bat sortzea Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan bertan. Gainera, azpimarratzen du ikerketa historikoa bultzatu behar dela Bigarren Errepublikatik hasi eta demokraziara arte, eta biltzarrek,



jardunaldiak, erakusketak eta bestelako jarduerak antolatu behar direla Euskadiko memoria historikoa eta demokratikoa zabalduko direla bermatzeko.

Bigarrenik, funtsezko lankidetzeta-bide bat ezarri da Hezkuntza Sailarekin, tresna didaktikoak garatzeko eta, horrela, memoria historikoa txertatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculumean. Heziketa-lan hori beste jarduera batzuekin osatu beharko da, adibidez ikasleentzako erakusketak, ibilbideak edo eremuak bisitatuz. Horrela, bermatu ahal izango da ikasleek jakingo dutela zer gertatu zen Euskadin aipatutako aldian.

Lege honen V. kapituluak dioenaren arabera, Gogorari dagokio gerra zibilean desagertutako pertsonak lokalizatu eta identifikatzeko jarduerak egitea eta, lokalizatur gero, gorpuzkiak identifikatzea. Bada, ezarritako protokoloari jarraikiz egingo dira prozesu horiek. Gainera, aipatutako institutuari dagokio hobien mapa egitea, desagertutakoen senideekin harremanetan ipintzea eta desagertutako pertsonen gorpuzkiak dituzten kolunbarioak omenaldirako eta oroipenerako leku gisa babestea.

Halaber, legeak ezartzen du hitzarmenak sinatu behar direla Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko erakundeekin edo Espainiako Gobernuarekin, ahalik eta desagertutako pertsona gehien berreskuratzeko. Era berean, zehaztu egiten du behar diren kudeaketak hasi behar direla Erorien Harana izenekoan (Cuelgamurosen) hobiratutako gorpuzkiak berreskuratzeko, senideek hala eskatzen dutenean.

VI. kapituluak Euskadiko memoria historikoaren lekuak, ibilbideak eta guneak aztertzen ditu. Orokorrean definitzen dira leku horiek, eta aipatzen da katalogo bat sortuko dela eta leku horiek babestu eta zaintzeko modua arautuko dela erregelamendu bidez.

VII. kapituluan daude azalduta memoria historikoaren kontrako ikurrak. Izan ere, horrelako elementu, sari eta ohore instituzional gehienak azken urteetan kendu diren arren, oraindik badaude behin betiko ezabatu behar diren aztarna batzuk.

VIII. kapituluak Euskadiko memoria historikoari eta demokratikoari buruzko dokumentuak aztertzen ditu. Euskadiko dokumentu-ondarearen barruan ez dauden dokumentuak horrelakotzat hartu ahal izango ditu arlo horretan eskumena duen sailak. Gainera, gomendatzen da beharrezkoak diren neurriak egin daitezela Euskadirentzat interesgarriak diren dokumentu-funts eta ahozko testigantza guztiak bildu eta berreskuratzeko, memoria historikoaren eta demokratikoaren dokumentuak badira. Batez ere, azpimarratzen da Eusko Jaurlaritzak behar adina neurri sustatuko dituela gerra zibilean zein diktadura frankistan konfiskatutako dokumentuak berreskuratzeko.

IX. kapituluak aitortza egiten dio mugimendu asoziatiboari, Euskadiko memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko eta biktimak defendatzeko egin duen lanagatik. Era berean, neurriak ezartzen ditu haien partaidetza sustatzeko eta, horretarako, Memoria Historikoko Erakundearen Erregistroa eta Aholku Batzordea sortzen ditu.

X. kapituluan jarduketa eta antolakuntza administratiboari buruzko artikulua daude garatuta. Gogorari dagokio lege honetan ezarritako neurriak garatu eta bultzatzea, eta lau urterako jarduketa-plan bat egin beharko du legegintzaldi bakoitzaren hasieran. Era berean, Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluari ematen zaio institutuaren aurrekontua eta jarduketa-gidalerro nagusiak onesteko eskumena, 4/2014 Legean xedatutakoari jarraikiz.

XI. kapituluak, azkenik, zehapen-araubidea ezartzen du. Legearen amaieran, gainera, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken



xedapen idatzi dira. Lehenengo xedapen gehigarriak Gogorari ematen dio ardura azterlan bat susta dezan biktimentzako diruzko erreparazio-neurriek izan duten estaldura-mailen inguruko eta konpon litezkeen hutsuneei buruzko ondorioak ateratzeko. Bigarren xedapen gehigarriak, 23. artikuluan arautzen den Euskadiko Memoria Historikoko Lekuen Katalogoa dekretuz onartuko dela adierazten du. Lehenengo xedapen iragankorrak legea indarrean jarri baino lehen hasi diren prozeduren inguruko xedapenak ematen ditu. Bigarren xedapen iragankorrak jasotzen du Eusko Jaurlaritzak jarduerak egingo dituela Euskadiko memoria historikoari buruzkoa den eta Estatuaren jabetzakoa den dokumentu-ondarea lekualdatu ahal izateko. Xedapen indargabetzaile bakarrak indarrrik gabe uzten ditu lege honen edukiaren kontra egiten duten manuak. Azken xedapenetako lehenengoak lege honen erregelamendu bidezko garapena zehazten du. Azken xedapenetako bigarrenak legea indarrean noiz jarriko den ezartzen du.

## **XEDAPEN OROKORRAK**

### 1. artikulua: Xedea eta zertarakoa.

Lege honen xedea da Euskadiko memoria historiko eta demokratikorako politika publikoak arautzea, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.19 artikuluetan xedatutakoaren babesean, gerra zibilean eta diktadura garaian arrazoi politiko, ideologiko edo erlijiosoengatik jazarpena edo indarkeria jasan zutenen erreparazio morala eta memoria pertsonal eta familiarraren berreskurapena sustatzeko; horrez gain, balio eta printzipio demokratikoak bultzatu nahi dira, eta ezagutzera eman zer gertatu zen, eta zergatik, gerra zibilean, diktadura frankistan eta demokraziarako trantsizioan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua indarrean sartu zen arte.

### 2. artikulua: Printzipio orokorrak.

1. Legeak printzipio hauek ditu oinarri: egia, justizia, erreparazioa eta egoera hori berriro ez gertatzeko bermea. Halaber, balio demokratiko hauetan dago oinarrituta: elkartasuna, bizikidetzeta, aniztasun politikoa, giza eskubideen defentsa, bakearen kultura eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

2. Konstituzioaren 10.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiak gai horien inguruan berretsi dituen nazioarteko tratatu eta akordioen arabera aplikatu eta interpretatuko da lege hau.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak behar adina neurri hartuko ditu, ordenamendu juridikoan jasotako bermeak hertsiki errespetatuz, honako eskubide hauek bermatzeko:

- a) Egia jakiteko eskubidea. Gerra zibilean eta diktadura frankistan gertatutako giza eskubideen urraketa eta, egoerarik latzenetan ere, askatasuna eta demokrazia defendatzeko ahalegina ezagutzeko eta ikertzeko eskubidea.
- b) Justizia izateko eskubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenen baitan, gerra zibila, diktadura frankista eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutua indarrean sartu arteko demokraziarako trantsizioa hartzen dituen aldiari dagokiona.
- c) Aitortza eta erabateko erreparazio eraginkorra izateko eskubidea, urraketa astuntasunari eta jasandako kalteei dagokien neurrian; horretarako, beharrezkoak dira neurri indibidual eta kolektiboak, erreparazio morala, eta itzultzearekin, kalte-ordainarekin, errehabilitazioarekin eta ordainarekin lotutako neurriak.



### 3. artikulua: Hartzaileak.

Arreta berezia jarriko zaie pertsona eta kolektibo hauei:

- a) Bonbardaketen, epaiketaz kanpoko exekuzioen edo exekuzio sumarisimoen ondorioz hildako biktimei, espetxean hildako pertsoneri eta estatu-kolpe militarren aurrean eta diktadura frankistan legezkotasun demokratikoa defendatzearen ondorioz hildako pertsoneri.
- b) Errepublika defendatzeagatik edo, demokrazia berrezarri nahian, erregimen frankistari aurka egiteagatik Euskal Autonomia Erkidegoan zein Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo espetxeratu, torturatu, deportatu eta nahitaezko lanak egitera behartu edo kontzentrazio- edo deuseztatze-esparruetan sartu zituzten pertsoneri.
- c) Estatu-kolpe militarren eta diktadura frankistaren ondorioz erbesteratu ziren pertsoneri.
- d) Diktadura frankistaren ondorioz errepresio ekonomikoa, isunak eta konfiskatzeak jasan zituzten pertsoneri.
- e) Bigarren Errepublikan kargu edo lanpostu publikoren bat izateagatik errepresaliak jasan zituzten edo kaleratuak izan ziren pertsoneri.
- f) Askatasunen eta demokraziaren alde eta diktadura frankistaren aurka borrokatu zuten alderdi politiko, sindikatu, mugimendu feminista eta asoziatiboak.
- g) Masoneriaren eta Komunismoaren aurkako Errepresio Auzitegiak izen bereko salbuespen-legearen babesean epaitu zituzten logia masonikoei eta bestelako erakundeei.
- h) Beren ideologia eta lanbideagatik errepresioa jasan zuten pertsoneri, batez ere Bigarren Errepublikako maisu-maistrei.
- i) Diktadura frankistan sexu-orientazioa dela-eta edo gutxiengo etniko bateko kide izateagatik errepresioa jasan zuten pertsoneri.
- j) Diktadura frankistan euskara erabiltzeko debekua zela-eta hizkuntza hori erabiltzeagatik jazarpena eta errepresioa jasan zuten pertsoneri.
- k) Beren egoera berezia dela-eta 38. artikuluan aipatzen diren planetan sartzen diren beste kolektiboak.

## **I. KAPITULUA.**

### **EGIA JAKITEKO ESKUBIDEA**

#### 4. artikulua: Egia argitzeko ikerketa.

1. Eusko Jaurlaritzak behar adina ekintza sustatuko ditu eta beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu gerra zibilean eta diktadura frankistan Euskadin izandako biktimak identifikatzeko, ikerketa historikoak eginez eta ahozko testigantzak bilduz.

2. Halaber, ikerketak bultzatuko ditu, diktadura frankistan oro har gizartean gertatutako injustizia historiko eta politikoa ezagutarazteko, izan ere, erregimenak errepresioa eta oinarrizko askatasunik eza bultzatu zituen.

#### 5. artikulua: Gerra zibilean eta frankismoan, 1936-1978 epean, Euskadin izandako giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena.

1. Eusko Jaurlaritzak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren bitartez (aurrerantzean, Gogora), beharrezkoak diren ikerketak sustatuko ditu "Gerra zibilean eta frankismoan, 1936-1978 epean, Euskadin izandako giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena" izeneko txostena prestatzeko.



2. Lortutako emaitzak publikoak izango dira, datu-base baten bitartez. Datu-base horretan sartuko dira administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten herritarrak eta, halaber, lege honen xede diren gertakariak jazo zirenean oinarrizko giza eskubideen urraketa Euskal Autonomia Erkidegoan jasan zuten pertsonak.
3. Datu-basea publikoa izango da hildako edo desagertutako pertsonen kasuan eta biktimek baimena ematen duten kasuan.
4. Datu-basean erregistratuko dira, besteak beste, pertsona bakoitzaren hiltzeko edo desagertzeko arrazoa, lekua, egoera eta errepresioa noiz jasan zuen, baina beti datu pertsonalak babesteari buruzko araudian xedatutakoa betez.
5. Ikerketak ikuspegi historikoa eta giza eskubideen nazioarteko ikuspegia uztartuko ditu; hala, kategoria historikoak alderatuko ditu Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen kategoriekin, baita generoarekin zerikusia dutenekin ere.

## II. KAPITULUA.

### JUSTIZIA IZATEKO ESKUBIDEA

#### 6. artikulua: Lankidetzaren Justizia Administrazioarekin.

1. Memoria historikoaren arloan eskumena duen erakundea, hots, Gogora institutua, lankidetzan arituko da Justizia Administrazioarekin gerra zibilaren eta diktadura frankistaren biktimek justizia izateko duten eskubidea sustatzeko.

2. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruaren barruan, erreparazioa eskatuko da Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 3. artikulua ilegimitotzat jotzen dituen auzitegien, epaimahaien eta bestelako edozein zigor- edo administrazio-organoren ebazpenen ondorioak jasan zituztenentzat. Nolanahi ere, biktimek edo haien familiek ebazpen horien deuseztasuna egiaztatzen duen deklarazio judiziala ere eskatu ahal izango dute.

#### 7. artikulua: Delituen bat egin izanaren zantzuak jakinaraztea.

Eusko Jaurlaritzak Ertzaintzari, fiskaltzari eta organo judizialei jakinaraziko dizkie egindako aurkikuntza eta ikerketen emaitzak, baldin eta lokalizazioen eta identifikazioen ondorioz deliturik egin izanaren zantzurik ikusten bada.

#### 8. artikulua: Prozesu-egintzak.

Gogora institutuak proposamena egin diezaioke Legelarien Euskal Kontseiluari prozesuren bat martxan jartzeko edo dagoeneko martxan dauden horietan pertsonatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke Legean xedatutakoari jarraikiz, jurisdikzio-organoen aurrean prozesu-egintzak gauzatzeko, arlo horretan deliturik egin izanaren zantzurik balego.

#### 9. artikulua: Nazio mailako eta nazioarteko erakundeen gomendioak sustatzea eta jarraitzea.

Gogora institutuak lankidetzaren emango die Arartekoaren ekimen eta gomendioei, bai eta zigorgabetasuna ez instituzionalizatzeko eta justizia izateko eskubidea bultzatzeko neurriak sustatzen dituzten nazioarteko erakundearen ekimen eta gomendioei ere.



### III. KAPITULUA.

#### BIKTIMEK AITORTZA ETA ERREPARAZIOA IZATEKO ESKUBIDEA

##### 10. artikulua: Aitortza orokorra.

1. Biktimei eta haien senideei abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 4. artikuluan aipatzen den deklarazioa eskuratzeko laguntza emateaz gain, aitortu egiten da biktimek eskubidea dutela aitortza dokumentu pertsonalizatu eta instituzional bat eskuratzeko, Eusko Jaurlaritzak igorria, beren ohorea eta ordain morala birgaitzea helburu.

2. Ziurtagiri hori bateragarria izango da ordenamendu juridikoan aurreikusita dagoen beste edozein aitortza edo erreparazio modurekin, baina ez du aitortzen administrazio publikoen ondare-erantzukizunik eta, hortaz, ez du eragingo inolako ondorio, erreparazio edo kalte-ordain ekonomiko edo profesionalik.

##### 11. artikulua: Erakundeen neurriak eta egintzak gerra zibilaren eta diktaduraren biktimak oroitzeko eta aitortzeko.

1. Gogora institutuak erakunde arteko deklarazio bat sustatuko du, ahalik eta alderdi politiko gehienen babesarekin, erakundeek memoria historikoa erreparatzeko ekarpena egin dezaten.

2. Estatu-kolpe militarren zein diktaduraren biktimak urtero oroitu eta omentzeko egun bat zehaztuko da.

3. Egun horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek, tokiko erakundeen lankidetzeta eta elkarte memorialisten partaidetzarekin, aitortzarako eta omenaldia egiteko jarduerak antolatuko dituzte, biktimen memoria bizirik mantentzeko eta balio demokratikoak eta askatasunak aldarrikatzeko.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek, halaber, bestelako neurri aktibo eta egintza instituzional batzuk sustatuko dituzte 3. artikuluan definitutako biktimak oroitzeko eta aitortzeko.

Horiek guztiak Gogora institutuaren lau urterako planetan garatu eta jasoko dira (lege honen 38. artikuluan aipatzen dira plan horiek).

##### 12. artikulua: Erreparazio-neurriak

Gogorak, lege honen lehenengo xedapen gehigarriak xedatzen duenari jarraikiz, bai estatu mailako araudian bai autonomikoan biktimei aitortzen zaizkien erreparazio-neurri ekonomikoak aztertu beharko ditu; hala, Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak erabakiko du ea egokia eta bideragarria den bestelako kalte-ordain osagarri batzuk ematea, eta, hala bada, horiek proposatu eta ezarriko ditu.

### IV. KAPITULUA.

#### DIBULGAZIOA ETA HEZKUNTZA

##### 13. artikulua: Memoria historikoaren dibulgazioa



Gogorak Euskadiko memoria historikoaren eta demokratikoaren zabalkundea bultzatuko du, memoriaren eraikuntzan herritarren partaidetza areagotzeko eta gertatutakoari buruzko hausnarketa kritikoa egitea eragiteko. Besteak beste, eta beti genero-ikuspegia kontuan hartuta, neurri hauek sustatuko dira:

- a) Gogora institutuaren dokumentazio-zentroa eta liburutegia sortzea eta sendotzea, eta denon eskura jartzea, herritar guztiei emanez irispidea izateko aukera.
- b) Ikus-entzunezkoen eta dokumentazioen funtsa sortzea eta zabaltzea, batez ere gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen lekukotzak bilduz.
- c) Gogoraren erakusketa-proiektua garatzea Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan.
- d) Euskadin memoria lantzen duten museoak berritzea eta sustatzea, bereziki "Gernika 1937. Bakearen Museoa".
- e) Memoria historikoa eta demokratikoa zabaltzearekin lotura duten biltzarrak, jardunaldiak, topaketak, erakusketak eta bestelako jarduerak antolatzea.
- f) Ikerketa historikoak sustatu eta bultzatzea unibertsitateekin edo unibertsitate-institutuekin, baita izen handiko historialariek ere.

#### 14. artikulua. Memoria historikoaren ekarpenak hezkuntzan

Gogora institutuak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, tresna didaktikoak eskainiko ditu memoria historikoa Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculumean txertatzeko, eta bermatu egingo du tresnok egiteko prozedurak zehaztasun historikoan eta aniztasunean oinarrituko direla.

Halaber, Hezkuntza Sailarekin koordinatuta, bisita didaktikoak sustatuko ditu erakusketetara, museoetara eta memoria historikoaren leku eta ibilbideetara.

### **V. KAPITULUA.**

#### **DESAGERTUTAKO PERTSONAK BILATZEKO ETA IDENTIFIKATZEKO NEURRIAK**

#### 15. artikulua: Gerra zibilean eta frankismo garaian desagertutako pertsonak berreskuratzea.

1. Gogora institutuak behar adina neurri eta jarduera hartuko ditu gerra zibilean eta diktadura frankistan Euskadin desagertutako pertsonak lokalizatzeko eta identifikatzeko eta, posible bada, pertsona horien gorpuzkiak berreskuratzeke eta identifikatzeko.
2. Gogora institutuak bitarteko eta komunikazio-kanal egokiak ezarriko ditu bermatzeko biktimiek eta beren senideek badakitela eskubide hori dutela, eta gorpuzkiak lokalizatzeko, desobiratzeko eta identifikatzeko prozesua ezagutzen dutela.
3. Gerra zibilean desagertutako pertsonak lokalizatzeko, desobiratzeko eta, hala dagokionean, gorpuzkiak identifikatzeko ekintzak jarduketa zientifikoko eta diziplina anitzeko protokoloaren arabera egingo dira (abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 12.1 artikuluan dago deskribatuta).

Halaber, hobietan esku hartzeko protokolo horiek aplikatuko dira gudarien, milizianoen edo gerra zibilean ekintza militarretan edo ekintza militarren ondorioz hil ziren pertsonen hobi komunetan esku hartzeko, ekintza hori programatuta egon zein ustekabeko aurkikuntza baten ondorioz egin.



## 16. artikulua: Gorpuzkien lokalizazio-mapa.

1. Gogora institutuak eguneratuta izango du desagertutako biktimen Euskal Autonomia Erkidegoko lokalizazio-mapak edo, eskuragarri dauden datuen arabera, ustez biktimen gorpuzkiak egon daitezken lokalizazioena.
2. Mapako informazio hori bidali egingo da, Espainiako estatu osoko mapa bateratuan txertatzeko, abenduaren 26ko 52/2017 Legearen 12. artikuluan xedatutako prozedurei jarraikiz.
3. Dokumentazio kartografikoa eta geografikoa, bai eta 1. apartatuan azaldutako lokalizazioak eta eskuragarri dagoen bestelako informazio osagarria ere, interesdunen eta gainerako herritarren esku ipiniko dira.

## 17. artikulua. Biktimak lokalizatu, desobiratu eta identifikatzea.

1. Gerra zibilean eta frankismo garaian desagertutako pertsonen gorpuzkiak lokalizatu, desobiratu eta, hala dagokionean, identifikatzeko ekintzak Gogora institutuak baimendu beharko ditu, lege honetan aurreikusitako protokoloekin bat eta erregelamendu bidez ezarriko diren berme eta prozeduren arabera.

Halaber, prozedura hori hasiko bada, gorpuzkiak aurkitu diren lekuari dagokion barruti judizialeko Instrukzio Epaitegiari jakinarazi beharko dio Gogorak,

2. Gogora institutuak kudeatuko ditu jarduketa-prozesuaren azterketa, balorazioa, koordinazioa eta jarraipena.
3. Antolatutako prozesuei esker zein ustekabeen aurkitutako gorpuzkiak lekualdatzeko, Gogora institutuaren baimena beharko da.

Gorpuzkiak lekualdatu ondoren inork erreklamatzeko ez baditu, agintzen den kolonbarioan hobiratu beharko dira, edota gorpuzkiak aurkitu ziren udalerriko hilerrian.

4. Ikerketa-prozesua bukatutakoan, azken txosten bat prestatu beharko da prozesuan parte hartu duten aditu guztien txostenekin, eta Gogora institutuan gordailatu beharko da azken txosten hori.
5. Eusko Jaurlaritzak, Gogoraren bitartez eta tokiko erakundeekin adostuta, teknikoki desobiratzea ezinezkoa denean, duindu egingo ditu biktimen hobiak eta, horrela, behar bezala kontserbatuko direla ziurtatuko du.

## 18. artikulua. Gorpuzkiak ustekabeen aurkitzea.

1. Norbaitek ustekabeen gorpuzkiak aurkitzen baditu, berehala jakinarazi beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, aurkitzen diren lekuko Udalari edo Ertzaintzari, eta horiek ahalik eta lasterren eman beharko diote aurkikuntzaren berri Gogora institutuari.
2. Udalak, bere eskumenen baitan eta lege honetan memoria historikoaren arloan aurreikusitako lankidetzaren esparruan, gorpuzkiak aurkitu diren lekua babestu, mugatu eta zainduko du.

## 19. artikulua. Proba genetikoak eta DNA-bankua.

1. Gorpuzkiak desobiratzen direnean hezurretatik lagin genetikoak ateratzeko, 15.3 artikuluan adierazitako protokolo-gidalerroei jarraitu beharko zaie.





Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak DNA-bankuen sistema bat ezarri eta kudeatuko du. Bertan, desobiratutako hezurren datuak eta biktimen senideak direla frogatu ondoren laginak ateratzeko eskaera egin duten boluntarioen datuak erregistratuko dira. Hala, haien DNA sekuentziatu eta biltegitutako laginekin alderatu ahal izango da.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetzaz bultzatuko du Euskal Herriko Unibertsitatearekin, arlo horretan dauden baliabiderik egokienak eta aurreratuenak erabiltzen direla bermatzeko.

#### 20. artikulua. Lankidetzaz beste gobernu batzuekin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko erakundeekin.

Eusko Jaurlaritzak lankidetzaz-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu Espainiako Gobernuarekin, beste autonomia-erkidego batzuekin eta erakunde publiko zein pribatuekin, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo indarkeriaren ondorioz desagertutako Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren inguruko ikerketak, lokalizazioak eta identifikazioak egiteko.

#### 21. artikulua. Erorien Harana (Cuelgamuros)

Eusko Jaurlaritzak bidezko lankidetzaz-bideak ezarriko ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin Erorien Harana izenekoan (Cuelgamurosen) hobiratutako euskaldunei dagokionez, hala nahi duten familiek gorpuzkiak desobiratu ahal izan ditzaten.

Halaber, Gogora institutuak laguntza emango die desobiratzeko prozesua abian jarri eta han hobiratuta daudenen gorpuzkiak berreskuratu nahi dituzten familiei.

#### 22. artikulua. Duintasunaren Kolunbarioa.

Gogora institutuak etengabe omentzeko eta oroitzeko leku gisa babestuko ditu dauden eta sortzen diren kolunbarioak, tartean Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioa; bertan hobiratuko dira gerra zibilean desagertu ziren eta identifikatu ez diren pertsonen gorpuzkiak, baita identifikatuta daudenenak ere, baldin eta senideek erabakitzen badute bertan hobiratzea.

## **VI. KAPITULUA.**

### **EUSKADIKO MEMORIA HISTORIKOAREN LEKUAK, GUNEAK ETA IBILBIDEAK**

#### 23. artikulua. Euskadiko memoria historikoaren lekuak, guneak eta ibilbideak.

1. Euskadiko memoria historikoaren lekuak dira autonomia-erkidegoarentzat interesgarriak diren gune, eraikin edo inguruak, berezko garrantzi historiko edo sinbolikoa izan duten edo memoria kolektiboan eragin nabaria izan duten gertakariak egon direlako bertan, balio eta askatasun demokratikoen defentsarekin lotuta.

2. Memoria historikoaren ibilbideak dira Euskadiko memoria historikoaren bi leku edo gehiagok osatutako multzoak, espazio berean badaude eta historikoki nahiz sinbolikoki antzera interpretatu badaitezke, bestelako balio esanguratsuei ere kalterik egin gabe: arkitektonikoak, paisaiari edo ingurumenari lotutakoak, etnografikoak edo antropologikoak.



3. Horrez gain, Euskadiko memoria historikoaren lekutzat hartuko dira 1. puntuari deskribatutako gertaerekin lotura zuzena eta historikoa izan ez arren, errepresio horren biktimak oroitzeko, aitortzeko eta erreparatzeko, biktimen senideek, elkarte memorialistek, erakundeek edota administrazio publikoek gerora sortu dituzten guneak.

Memoriaren lekuen, guneen eta ibilbideen katalogo bat sortuko da, publizitate eta kontrol helburuekin, eta erregelamendu bidez garatuko da katalogo horren antolamendua eta inskribatzeko prozesua, baita horiek guztiak babestu eta zaintzeko modua ere.

## VII. KAPITULUA.

### MEMORIA HISTORIKOAREN KONTRAKO IKURRAK

#### 24. artikulua. Euskadiko memoria historikoaren kontrako elementuak.

1. Euskadiko memoria historikoaren eta biktimen duintasunaren kontrakoa da 1936ko estatu-kolpea edo frankismoa, horien buruzagiak edo erregimen diktatorialaren alde egin zuten erakundeak oroitu, goraipatu edo goresteko asmoz elementuak jendaurrean erakutsi edo aipamenak egitea, banaka zein kolektiboki, adibidez honako hauek erabiliz:

- a) Eraikin publikoetan edo bide publikoetan jarritako plakak, armarriak, intsigniak, inskripzioak, anagramak edo bestelako elementuak.
- b) 1936ko altxamendu militarreko eta diktadura frankistako partaideak, bultzatzaileak edo babesleak aipatzea, eta errepublikaren legezketasuna eta bere babesleak gutxiestea.
- c) Estatu-kolpea edo diktadura frankista babestu zuten militarrek edo politikariak omentzen dituzten kaleen, bideen edo leku publikoen izenak.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondoretarako, erakustaldi publikoak dira edozein eraikin publikotan jarritako elementuak, edo erabilera publikoko eraikin pribatuetan edota sarbide edo erabilera publikoko espaziora begira dauden eraikinetan jarritakoak.

#### 25. artikulua. Memoria historikoaren kontrako elementuak kentzea.

1. Administrazio publikoek edo mendeko erakunde publikoek Euskadiko memoria historikoaren kontrakoak diren elementu guztiak kenduko dituzte euren titulartasunekoak diren eraikinetatik.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko administrazioek, dituzten eskumenak erabiliz eta aurreko artikuluan xedatutakoari jarraikiz, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren udalerrietan memoria historikoaren kontrakoak diren elementuak kentzeko. Sarbide edo erabilera publikoko espaziora begira dauden eraikinetan badaude jarrita, Udalak neurriak hartu beharko ditu jabeek kendu edo ezabatu ditzaten.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak, Gogoraren bitartez, ahalmena izango du memoria historikoaren kontrako elementuak kendu eta ezabatu ahal izateko ekimenak modu subsidiarioan aurrera eramateko, baldin eta arrazoitua badago tokiko administrazioek ezin dutela ekimen hori aurrera eraman.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek, xedapen hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, txosten bat bidali beharko diote Gogora institutuari, beren udalerrietako bide eta



espazio publikoen izenak lege honetan xedatutakoaren arabera egokitzeko egin duten lana azalduz.

#### 26. artikulua. Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak kentzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko administrazioek aztertu eta baliogabetu egingo dituzte 1936ko altxamendu militarra, gerra zibila eta frankismoa goraipatu edo goresteke balio duten pertsona eta erakundeei emandako sari, izendapen, ohorezko titulu eta bestelako modu guztiak, eta urtebeteko epea izango dute hori ziurtatzeko diligenziak egiteko. Administrazioek publiko egingo dute ziurtatze hori, eta behar bezala jakinaraziko diote Gogora institutuari, web atarian argitara dezan.

#### 27. artikulua. Laguntzak eta dirulaguntzak.

Ordenamendu juridikoak horrela jasotzen duenetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ez die dirulaguntzarik, hobaririk ez laguntza publikorik emango Euskadiko memoria historikoaren eta demokratikoaren kontrako ekintzak egitea sustatu edo onartzeagatik administrazio-ebazpen irmoaren zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei, izan publikoak zein pribatuak, lege honen XI. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

### **VIII. KAPITULUA.**

#### **EUSKADIKO MEMORIA HISTORIKOARI BURUZKO DOKUMENTUAK**

#### 28. artikulua. Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak eta beren babesak.

1. Lege honen ondoretarako, Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentua izango da edozein izaeratako pertsona fisiko nahiz juridikoek sortutako informazio oro, beren edo hirugarren pertsonen ekintzen lekukotza gisa, Euskadiko memoria historikoak biltzen duen garaian euskaldunek beren eskubide eta askatasunak defendatzeko egindako borrokari buruz, historiaren zati hori babesteko, ezagutarazteko eta zabaltzeko. Informazioa euskarri batean jasota egon behar da, edozein adierazpen modutan eta testuinguru teknologikotan sortu dela ere.

2. Kultura-ondarearen arloan eskumena duen sailak Euskadiko dokumentu-ondaretzat hartu ahal izango ditu kategoria horretan sartzen ez diren Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak, Gogora institutuak hala eskatzen badu, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean edo horren ordezkotako arauan ezarritako prozedurei jarraikiz.

3. Abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 21.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, artxibo pribatu nahiz publikoetan dauden gerra zibilari edo diktadura frankistari buruzko dokumentuak dokumentazio-ondarea eta ondare bibliografikoa dira.

4. Lege honen 38. artikuluan aipatutako planaren esparruan, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira autonomia-erkidegoarentzat garrantzitsuak diren dokumentuak eta ahozko lekukotzak biltzeko eta berreskuratzeko, Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak baitira.

#### 29. artikulua. Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak gordetzea eta eskuratzea.



1. Botere publikoek behar adina neurri hartuko dituzte Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak babesteko, osorik gordetzeko, deskribatzeko, identifikatzeko eta zabaltzeko, batez ere hondatuta edo degradatzeko arriskuan daudenak, eta behar bezala zainduko dituzte bereziki inork ez lapurtu, suntsitu edo ezkutatzeko.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, aurrekontuaren arabera eta 38. artikuluan jasotako jarduketa-plana kontuan hartuz, programa bat onetsiko du urtero, nazioko edo atzerriko artxibo publiko zein pribatuetan dauden Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak –originalak zein originalen kopia leialak izan– eskuratzeko edo kopiatzeko, edota horiekin lotura duten hitzarmenak sinatzeko.

### 30. artikulua. Dokumentu-funtsak berreskuratzea.

1. Gogora institutuak, kultura-ondarearen arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan, lege honek biltzen duen aldian Euskadin dokumentu-funts publikoak desagertu izana ikertzea bultzatuko du.

2. Eusko Jaurlaritzak, administrazio publikoekin lankidetzan, behar adina neurri sustatuko ditu gerra zibilean zein diktadura frankistan matxinatutako indarrek Euskadin konfiskatu zuten memoria historikoari buruzko dokumentazio-ondarea berreskuratzeke, eta Euskadiko Artxibo Historikoan sartzeko.

### 31. artikulua. Dokumentu-irispidea izateko eskubidea.

1. Bermatu egiten da Euskadiko dokumentazio-ondarea osatzen duten Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentu-irispidea izateko eskubidea, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean eta aplikatzekoak diren bestelako arauetan ezarritakoarekin bat.

2. Herritarrek eta batez ere ikerketa historikoaren arduradunek errazago izan dezaten dokumentu horietarako irispidea, dokumentu horiek digitalizatzea sustatuko da.

### 32. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa.

1. Gogora institutuak Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentro bat izango du, Euskadiko memoria historikoari buruzko dokumentuak biltzeko, berreskuratzeke, aztertzeke, zabaltzeko eta horiei buruzko informaziorako irispidea errazteke. Halaber, dokumentazio-zentro horrek babes eta oinarri dokumental eta historikoa eman nahi die Eusko Jaurlaritzak, beste edozein administrazio publikok, horren mendeko erakunderen batek edo lege honen antzeko helburu sozialak dituen elkarte pribaturen batek memoria historikoarekin lotuta sustatzen dituen ekintza, ekimen eta estrategiei.

Dokumentazio-zentroak Euskadiko memoria historikoari lotuta ezagutarazi eta iker daitezkeen dokumentuak sortzen dituzten erakunde guztiak erregistratuko ditu; hala, dokumentuak identifikatuko dira, eta zein leku eta artxibotan dauden adieraziko da, kontrola eta zabalkundea helburu.

2. Helburu horiek lortzeko, Gogora lankidetzan arituko da administrazio publikoekin, pertsona fisiko zein juridikoekin –publiko nahiz pribatuak–, Euskadiko artxiboaren sistemako organo eta zentroekin eta, oro har, artxibo publiko eta pribatuekin, Euskal Autonomia Erkidegokoak zein kanpokoak izan, baldin eta Euskadiko memoria historikoarekin lotura duten dokumentuak badituzte.

## **IX. KAPITULUA.**



## **ERAKUNDE MEMORIALISTEN AITORPENA, SUSTAPENA ETA PARTAIDETZA**

### 33. artikulua. Mugimendu memorialista aitortzea.

Erakunde memorialistek egindako lana eta ekarpena aitortzen da, gizartea kontzientziatzen laguntzen baitute Euskadiko memoria historikoa gordetzeko eta biktimen eskubideak defendatzeko.

### 34. artikulua. Erakunde memorialisten jarduera sustatzea.

Gogora institutuak, elkartegintza sustatzeko, jarduera hauek sustatuko ditu, besteak beste:

- a) Memoria historikoari buruzko programetan elkarteen inplikazioa eta herritarren partaidetza sustatzeko neurriak.
- b) Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Erregistroan inskribatuta dauden erakundeei babes-programak eta laguntzak ematea lege honen helburuak betetzeko, aurrekontu-aukeren arabera.

### 35. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Erregistroa.

1. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Erregistroa sortu da, eta publikoa da. Bertan inskribatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten erakunde memorialistak, horien eta erregistratutako jardueren ezagutza, zabalkundea eta publizitatea errazteko; hala, Gogora institutuarekin duten harremana ere arinduko da.

2. Erregistroan inskribatu ahal izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten elkarte, fundazio eta bestelako erakunde sozialak: legez eratuta egotea; haien estatutuetan, helburuen artean, Euskadiko memoria historikoa edo biktimen eskubideen defentsa agertzea; irabazi-asmorik ez izatea; Euskal Autonomia Erkidegoan jardutea, eta egoitza ere Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

3. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuaren mende egongo da Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Erregistroa.

### 36. artikulua. Euskadiko memoria historikoko erakundeen partaidetza.

1. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Aholku Batzordea sortu da, Gogorara atxikita, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten erakunde memorialisten kontsultarako eta partaidetzarako kide anitzeko organoa izango da. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritzak zehaztuko du zein diren elkarte memorialistek kontsulta organo horretan izena eman eta parte hartu ahal izateko jarraitu beharreko mekanismoak.

2. Gogora institutuak sei hilean behin egingo du deialdia Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Aholku Batzordearekin biltzeko, bertan informazioa eman eta batzordeak memoria historikoaren politika publikoen garapenean parte hartuko duela bermatzeko.

## **X. KAPITULUA.**

### **JARDUKETA ETA ANTOLAKUNTZA ADMINISTRATIBOA**

### 37. artikulua. Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.



1. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuari dagokio lege honetan ezarritako neurriak sustatzea, bere ardura baita memoriari buruzko politika publikoak koordinatzea eta garatzea, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legean ezarritakoarekin bat.

2. Haren egitura, eginkizunak, antolaketa eta araubide juridiko eta ekonomikoa 4/2014 Legean eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuei buruzko azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuan daude araututa.

3. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseilua da urtero institutuaren aurrekontu-aurreproiektua, ekitaldi bakoitzerako jardueren plangintza eta jarduketa-ildo eta -gidalerro nagusiak onartzen dituen organoa, 4/2014 Legean xedatutakoari jarraikiz.

### 38. artikulua. Lau urterako jarduketa-plana.

1. Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, lau urterako plan bat onetsiko du, zeinak, besteak beste, memoria historikoari buruzko politika publikoak gidatuko dituen, eta horiek aurrera eramateko finantza-baliabideak zehaztuko.

2. Jarduketa-planak neurri zehatzak jasoko ditu kudeaketarako, ikerketarako eta dibulgaziorako, ekintza bakoitzaren denbora zehaztuta eta betetzen diren egiaztatzeko adierazleak ezarrita.

3. Halaber, Gogora institutuak, urtero, lege honen xede diren jardueren berriazko ebaluaketa bat egingo du, eta urteko planak prestatuko ditu, hurrengo ekitaldirako helburuak eta lehentasunak finkatzeko. Urteko txostena Zuzendaritza Kontseiluari bidaliko zaio, aztertu, eztabaidatu eta baloratu dezan. Era berean, Eusko Legebiltzarrari eta Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen Aholku Batzordeari ere bidaliko zaizkio urteko plana eta urteko txostena, horien berri izan dezaten.

### 39. artikulua. Lankidetzaren tokiko erakundeekin.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak lankidetzan arituko dira Gogora institutuarekin, beren eskumen-egikaritzea lagungarria izan dadin lege honetan xedatutakoa betetzeko eta bertako xedeak eta zertarakoak lortzeko.

2. Gogora institutua lankidetzan arituko da Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeekin, haien lurralde-mugen barruan memoria historikoa ezagutaraztea, oitza, sustatzea eta dibulгатzea bultzatzeko, lege honetan ezarritako baldintzetan.

## **XI. KAPITULUA.**

### **ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

#### 40. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea dakarten egiteak edo ez-egiteak kapitulu honetan aurreikusitakoaren arabera zehatuko dira, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

2. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteak zehatzeko ahalari dagokionez, kontuan hartuko dira lege hau eta administrazio publikoen eta zehapen-prozedura



administratiboaren araubide juridikoaren inguruko arauak, bai eta gure ordenamendu juridikoaren arau orokorrak ere.

3. Erantzule izango dira, bada, doloz edo zuhurtziagabekeriak jokatzearatik lege honen kontrako egiteak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Halakorik balego, lege honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzule **solidario** izango dira egite edo ez-egite horiek burutzea agindu duten pertsonak, edo ezinbesteko laguntzaile izan direnak.

#### 41. artikulua. Arau-hausteak.

1. Lege honetan xedatutakoaren kontrako arau-hausteak oso astunak, astunak zein arinak izan daitezke.

2. Hauek dira arau-hauste oso astunak:

- a) Indusketak egitea 17.1 artikuluan aurreikusitako baimenik gabe.
- b) Biktimen hobiak suntsitzea 16. artikuluan aipatutako lokalizazio-mapetan zehaztutako lurretan edo Euskadiko memoria historikoaren lekuren batean.

3. Hauek dira arau-hauste astunak:

- a) Ustekabean gorpuzkiak aurkitu izana jakinarazteko betebeharra ez betetzea, arrazoi justifikaturik gabe, 18. artikuluan araberera.
- b) Gorpuzkiak lekualdatzea, 17.3 artikuluan aurreikusitako baimenik gabe.
- c) Edozein obra edo esku-hartze egitea Euskadiko memoria historikoaren leku batean, biktimen hobiei eraginez, 17.1 artikuluan aipatutako baimenik gabe, non eta ez den arau-hauste oso astuna.
- d) Memoria historikoaren kontrako elementuak kentzeko ebazpena ez betetzea, 24. artikuluan araberera.
- e) Gerra zibilaren edo diktadura frankistaren biktimen edo haien senideen duintasunaren kontrako adierazpen iraingarri, laidogarri edo erasokorrak egitea edo zabaltzea edozein hedabide, hitzaldi edo agerraldi publiko zein plataforma digitaletan, bai eta frankismoa edozein modutan gorestea ere, non eta jokabideon kategoria horiek ezin diren tipifikatu gorrotoa bilatzen duten delitutzat.
- f) Autonomia-erkidegoko administrazioaren ordezkari publikoek eta funtzionarioek 1936ko estatu-kolpe militarra eta diktadura goersten edo haren apologia egiten duten adierazpen edo erakustaldiak egitea.
- g) 1936ko estatu-kolpe militarra eta diktadura frankista, haren buruzagiak edo erregimen diktatoriala defendatu zuten erakundeak modu indibidualean edo kolektiboan ospatzea, gorestea edo goraiatzea bilatzen duen edonolako ekitaldi eta omenaldiak egitea.
- h) Erregimen diktatorialaren alde egin zuten pertsona, entitate edo erakundeentzako sariak edo aitortza sustatzea.

4. Hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Euskadiko memoria historikoaren lekuak bisitatzen uzteko betebeharra ez betetzea, 23. artikuluan aurreikusi den bezala.
- b) Euskadiko memoria historikoaren lekuetako guneak edo altzariak kaltetzea, non eta ez den arau-hauste astuna edo oso astuna.

#### 42. artikulua. Kalifikazioa astuntzea.



Arau bat berriro hautsiz gero, zehapen-ordenamendu juridikoaren arau orokorren arabera aztertuko da; horrelakoetan, hasieran arintzat jotako arau-haustea astun bihurtuko da, eta astuntzat jotakoa oso astun.

#### 43. artikulua. Zehapenak.

1. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteen zehapenak diruzkoak nahiz ez-diruzkoak izan daitezke.

2. Diruzko zehapenak isunak izango dira, jarraian adierazi diren zenbatekoen arabera, arau-haustearen astuntasuna aintzat hartuz eta proportzionaltasun-printzipioa betez:

- a) Arau-hauste oso astunak: 10.001 eta 150.000 euro arteko isuna.
- b) Arau-hauste astunak: 2.001 eta 10.000 euro arteko isuna.
- c) Arau-hauste arinak: 200 eta 2.000 euro arteko isuna.

3. Zehapen ez-diruzkoak osagarriak izango dira, hain zuzen ere: memoria historikoaren arloko dirulaguntza, hobari edo laguntza publikoak jasotzeko eskubidea galtzea gehienez bi, hiru edo bost urtean –arau-haustea arinak, astunak edo oso astunak diren, hurrenez hurren–, eta memoria historikoaren arloan jasota zuen dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzeko beharra. Zehapen osagarri horiek ezartzeko eta mailakatzeko, ordenamendu juridikoa betez egoki direnean eta bermeak zorrotz errespetatuz, aintzat hartuko da ekintzen astuntasuna eta oihartzuna, proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

#### 44. artikulua. Prozedura.

1. Memoria historikoaren arloko arau-haustea publikoki salatuko dira.

2. Lege honi jarraikiz arau-hauste izan daitekeen ekintza baten berri duten agintariek nahitaez jakinarazi beharko diote memoria historikoaren arloan eskumena duen sailari.

3. Prozedura hasteko erabakia memoria historikoaren arloan eskumena duen organoko titularrak hartuko du, ofizioz, berak hala erabaki duelako edo goragoko aginduen, beste organo batzuen eskaera arrazoituen edo herritarren salaketen ondorioz.

4. Kapitulu honetan ezarri diren zehapenak ezartzeko, kontuan hartuko dira administrazio publikoen eta zehapen-prozedura administratiboaren araubide juridikoaren inguruko arauetan aurreikusitako prozedurako xedapenak.

#### 45. artikulua. Zehatzeko eskumena.

1. Kapitulu honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko eskumenaren jabe dira:

- a) Memoria historikoaren arloan eskumena duen saila: ehun mila eurora arteko isunak.
- b) Gobernu Kontseilua: ehun mila eta ehun eta berrogeita hamar mila eurora arteko isunak.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaz gain, arau-hausteen ustezko delitu-egintzei dagozkien akzio penalak abiaraziko ditu, jurisdikzio-organoren eskudunen aurrean, memoria historikoaren arloan eskumena duen sailak.

**Lehenengo xedapen gehigarria. Diruzko erreparazio-neurriak.**





Gogora institutuak hala proposaturik eta Gobernu Kontseiluaren erabakiz, batzorde tekniko bat izendatuko da. Batzorde horrek, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, azterlan bat aurkeztuko du, estatuko nahiz erkidegoko araudian onartuta dauden biktimentzako diruzko erreparazio-neurriak deskribatuz, eta ondorioak aterako ditu lortu den estaldura-mailari buruz eta konpon litezkeen hutsuneei buruz. Azterlan hori Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluari bidali beharko zaio, kalte-ordain osagarriak bidezkoak eta bideragarriak diren balioetsi dezan eta, hala badagokio, proposatu eta abiarazi ditzan.

### **Bigarren xedapen gehigarria. Memoria historikoaren lekuak, guneak eta ibilbideak.**

Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, Gobernu Kontseiluak dekretu bat onartuko du memoria historikoaren arloan eskumena duen erakundeak hala proposaturik. Dekretu horren bitartez, Euskadiko Memoria Historikoko Lekuen Katalogoa sortuko da, lege honen 23. artikuluko ezaugarriak betetzen dituzten gune, eraikin edo inguruen publizitatea eta kontrola egiteko, eta katalogo horren antolamendua eta inskribatzeko prozesua arautuko dira.

Halaber, arautu egingo da katalogo horretan inskribatutako lekuen titularrek zein baldintza bete beharko duten gai hauei dagokienez: lekuen iraunkortasuna, identifikazioa, seinale egokiak, babes-erregimena, daukaten balioari eusteko moduan zaindu eta mantentzeko beharra, aurrez adierazitako egun eta orduetan herritarrei bisitan joaten uzteko aukerak, Administrazioak ikuskatu ahal izatea eta eskumena duten administrazio publikoek lekuaren egoeraz eta erabileraz eskatutako informazioa ematea.

### **Lehenengo xedapen iragankorra. Izapidetze-fasean dauden prozedurak.**

Lege hau indarrean sartzean hasita baina amaitu gabe dauden prozedurak izapidetzeko, hasi zirenean indarrean zeuden arauari jarraituko zaie.

### **Bigarren xedapen iragankorra. Dokumentu-funtsak berreskuratzea.**

Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Gobernuarekin adosturik, jarduerak egingo ditu Euskadiko memoria historikoari buruzkoa den eta Estatuko Administrazioaren jabetzakoa den funts-ondarea Euskadiko Artxibategi Historikora eraman ahal izateko, artxibo judizialak izan ezik, berariazko arautegiari jarraitu behar baitzaie horrelakoetan.

### **Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako arauak.**

Indargabetuta geratzen dira lege honen edukiaren kontra doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

### **Azken xedapenetako lehenengoa. Erregelamendu bidezko garapena.**

Lege hau erregelamendu bidez garatzeko, aintzat hartuko da Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.c) artikuluan xedatutakoa.

### **Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.